



**ETXARRI ARANAZKO UDALA**  
(NAFARROA)

**ESKAERA:** 2024ko egur lotea

ESKATZAILEAREN DATUAK	
Izen-abizenak:	
Helbidea:	Telefonoa:
Herria:	Probintzia:
Nortasun Agiria:	
(r)en izenean	

-**Onuradunak:** Oro har, herri lurren aprobetxamenduen onuradun izan nahi duten famili unitateetako titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Adinez nagusia edo adinez txiki burujabetu nahiz juridikoki zilegitua izatea.
- Udal erroldan izen emanda egotea bi urteko antzintasunaz. Entitate lokalek epe hori Ordenantza bidez finkatuko dute.
- Egoitza herri-lurraren entitate titularrean egiazki eta jarraian izatea, urtean bederatz hila betetan gutxienez.
- Onuradunak entitate lokalarekin dituen betebeharrak fiskalak eguneratuak izatea.

-**Prezioa:** 44 euro. Ordainketa bankuan egin behar da eta udaletxean ordainagiria aurkeztu. 60 euro epez kanpo egindako eskaera.

-**Izena emateko epea:** Tokiko Gobernu Batzordeak akordioa onartzen duenetik maiatzaren 17 arte, eredu ofiziala erabiliz. Eskaera sinatu eta aurkeztea baldintza hauek ezagutu eta beteko direnaren konpromisoa suposatuko du.

-**Zozketa:** Loteen esleipena zozketaren bitartez banatuko dira. Zozketaren eguna eta ordua eta emaitza bandoen bidez jakinaraziko da. Etxebizitza herritik 7 kilometro baino gehiago duenari esleipena zuzena egingo zaio.

**Baldintzak:**

- Ezinezkoa da zuhaitzak bere arramekin arrastaka ateratzea. Kalterik sortuz gero lotearen jabea izango da erantzulea.
- Pistara eta ezpondara eroritako arramak kendu beharko dira.
- Lotea moztu eta gero geldituko den tokoa ezin da 10 zentimetro baino handiagoa izan.
- Loteak ateratzeko epea, 2024ko uztailak 1an hasi eta irailaren 30ean bukatuko da. Epe horren barruan aterako ez balitz, lotea Udalaren eskuetara pasatuko litzateke. Epeak aldatzen badira interesdunei bandoaren bitartez jakinaraziko zaie.
- Bideak eta mendia ez kaltetzeko, eguraldi txarra dagoenean eta egun euritsuak direnean ezin izango da mendian lan egin.
- Lotearen esleituak ardura osoa bere gain hartuko du, bai berak hartu dezakeen kalte edota beste pertsoneri sor diezaiokkeen kalte. Era berean, istripuak ekiditeko seguritateko neurriak kontutan izango duenaren konpromisoa hartuko du. Etxarriko udalak ez du inolako ardurarik izango esleipen honek ondorioak izan arren.
- Egur lotearen esleituak egurra norberak aprobetxatu beharko du, egurra saltzea beti ere debekatuta dago.

Ordainketa honako kontu hauetako batean egin beharko da:

EUSKADIKO KUTXA ES66 3035 0116 99 1160900003

CAIXA ES87 2100 5345 83 2200028746

RURAL KUTXA: ES40 3008 0045 91 2155688423

- **Honako baldintzak onartzen ditut eta beteko ditudala aitortzen dut.**
- **Erreziboa bankuan ordaindu dut  ordainagiria eranstean dut.**

Etxarri Aranatz, 202...ko .....(a)ren .....(e)an.

**ESKATZAILEA/ EL SOLICITANTE**

**DATUEN BABESA:** Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu ezen inprimaki honetan jasotako datuak Administrazio honen berezko eskumenetarako baizik ez direla erabiliko, eta Etxarriko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietara bilduko direla; halaber, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko, Etxarri Aranazko Udalaren Erregistro Orokorrean joz.



**ETXARRI ARANAZKO UDALA**  
(NAFARROA)

ESKAERA: 2024ko egur lotea